

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

4332

HUTS-ZUZENKETA, honako ebazpen honena: Ebazpena, 2022ko irailaren 15ekoa, Kulturako sailburordearena, 2022. urtean sormen artistiko eta kulturala bultzatzen duten kultura-gune independenteei zuzendutako dirulaguntzak jakinarazten dituen (Sorgune).

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariari buruzko abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.b) artikulua xedatzen duenez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Era horretako hutsak aurkitu dira Kulturako sailburordearen 2022ko irailaren 15eko Ebazpenean (2022ko irailaren 27ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 185. zk.). Ebazpen horren bidez, 2022. urtean sormen artistiko eta kulturala bultzatzen duten kultura-gune independenteei zuzendutako dirulaguntzak jakinarazten dira (Sorgune). Hori dela-eta, dagokion zuzenketa egiten da hemen:

2022/4176 (4/3) orrialdean, II. eranskinean (Diruz lagundu ez diren eskabideak),

hau dio:

Espedientea	Eskatzailea	Jarduera	Puntuazioa	Zergatia
012-SOR-2022	Esteka elkarte	Arropaineko Arragua 2022-2023	61,7	Balorazioaren lehenengo fasean gutxienez 45 puntu ez ateratzeagaitik (Aginduaren 14.1.A artikulua)

Baina hau esan behar du:

Espedientea	Eskatzailea	Jarduera	Puntuazioa	Zergatia
012-SOR-2022	Esteka elkarte	Arropaineko Arragua 2022-2023	61,7	Balorazioaren lehenengo eta bigarren fasean gutxienez 65 puntu ez ateratzeagaitik (Aginduaren 14.1.B artikulua)